

GARAPENERAKO LANKIDETZAKO NAFARROAKO TOKI FUNTSA, 2017

1. DEIALDIAREN HELBURUA

Deialdi honen helburua da garapenerako lankidetzaproiektuak finantzatzea **2017rako Toki Funttsaren** kargura, garapen-bidean diren herrialdeetako (GBH) biztanleen oinarritzko premiak asetze aldera. Ondorio horretarako, funtsak aipatu ekitaldirako 140.000 € inguru ditu.

2. HERRIALDE ONURADUNAK

Funtseko laguntza jaso dezaketen herrialdeak dira Ekonomiako Lankidetzarako eta Garapenerako Erakundearen (ELGE) Garapenerako Laguntzako Batzordeak (GLB) indarrean duen onuradunen zerrendan jasota daudenak.

3. ERAKUNDE ETA PROIEKTU ONURADUNAK. BALDINTZAK

Deialdira bildu ahal izanen dira atxikitako oinarrietan eta deialdi honetan definitutako baldintzak betetzen dituzten garapenerako GKEak eta horien proiektuak.

4. ESKATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK.

GGKE eskatzaileak proiektuarekin batera (I. eranskina) honako agiriak aurkeztu beharko ditu:

a) Aipatu GGKEaren dokumentazioa:

1. Estatutuak.
2. Egoitza soziala.
3. Dagokion erregistroan erregistratuta dagoela bermatuko duen egiaztagiria.
4. Identifikazio fiskaleko txartelaren kopia.
5. Nafarroan aurreko urtean eginiko jardueren oroitza-txostena.
6. Gizarte Segurantzaren kotizazioetan eta zerga-betebeharretan eguneratuta dagoela ziurtatzeko agiriak.
7. Proiektuaren kostuaren eta jasoko den diru-laguntzaren arteko aldea (zuzenekoa edo hirugarrenen bidezko finantziazioarekin) ordaintzeko konpromisoa adierazten duen deklarazioa.

b) Tokiko kontrapartearen agiriak:

1. Estatutuak.
2. Legezko eraketaren egiaztagiria, proiektua eginen den herrialdeko legeen arabera.
3. Legezko helbide osoa.
4. Legezko ordezkariaren egiaztagiria.
5. Azken urteetan egindako jardueren memoria, haren eskarmentua baloratzeko.

c) Proiektuaren memoria. Memoriari dokumentazio ekonomikoa gehitu ahal izanen zaio (proformako fakturak, aurrekontu profesionalak, lurren peritazioa, eta abar) proiektua

burutzeko behar diren material-, ekipamendu-, hornikuntza-, eraikuntza-, lur eta bestelako kostuak egiaztatze aldera.

- d) Proiektua eginen den tokia zehazki erakusten duten mapak (herrialdea, eskualde edo departamentua, probintzia eta udalerrria).
- e) Dokumentazio grafikoa, teknikoa eta finantzarioa, eta proiektuaren ezaugarriez ongi jabetzeko borondatez eman nahi den bestelako dokumentazioa.

5. ESKAERAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEAK

Proiektuak aurkezteko epea **2017ko maiatzaren 15era** arte (hori barne) izanen da, eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren egoitzan (Tutera karrika 20, 3.a - Iruñea) aurkeztu beharko dira.

6. BALORAZIOA ETA AUKERATZEA

Funtsaren xedea ahal denik eta proiektu gehienetara iristea izanik, eta egungo ezaugarriak kontuan hartuta, funtsak ez du proiekturik aukeratzeko horien finantziazio-eskaera **24.000 eurotik** gorakoa bada.

Proiektuaren zeharkako kostuek ez dute kostu horien % 10 gaituko. Zeharkako kostutzat hartuko dira GKEren eta horrek ematen dituen zerbitzuen edo kontrapartearen administrazio-gastuak, proiektuaren formulazioaren, jarraipenaren, ebaluazioaren eta zabalpenaren ondoriozkoak. Gastu horiek proiektuaren aurrekontuaren banakapenean aparteko kontu-sail batean jasoko dira.

Halaber, proiektuen finantzaketaren % 20, gutxienez, funts propioetatik, beste administrazio publiko batzuetatik nahiz beste entitate batzuetatik aterako da. Funtsak emanen duen diru-laguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izango, beste erakunde edo instituzio publiko nahiz pribatutatik lortutako subentzio edo laguntzekin batera, burutuko den proiektuaren kostua baino handiagoa.

A) Proiektuak baloratzeko, ondorengo irizpideak hartuko dira aintzat, esleituko zaien haztapenarekin:

A.1. Eskaeraren jatorria: %13

Proposatzen den ekimenaren jatorria zein den baloratu asmo da. Alegia, jatorria baloratu eta proposatzen den proiektuari bidea ematen dion eskaera analizatu. Lehentasuna emanen zaie onuradunek beraiek eskatutako ekintzei.

A.2. Proiektuaren eragileak: %11

Erakunde eskatzaileen egitura, curriculum, kaudimena eta laguntza-, babes- eta ekintza-mailetan duten eginkizuna analizatzen dira. Gauza bera tokiko bazkide gisa ageri diren hegoaldeko GKEekin, oinarrizko elkarteekin, gobernu-erakundeekin eta bestelakoekin.

Balorzio hori egiteko kontuan hartuko dira, besteak beste, lehendik gauzatutako proiektuen bilakaera eta egoera, GKEak aurkeztuko duen memoriari erreparatuta.

A.3. Ekintzaren onuradunak: % 12

Aztertu beharra dago nor eta zenbatek jasoko duten proiektuaren onura, zerbitzuak eta prestazioak jasotzeko baldintzak, haien parte-hartzea. Balorzioak aintzat hartuko du onuradunek diskriminaziorik ez pairatzea sexu, arraza nahiz bestelako arrazoiengatik.

A.4. Lankidetzako lehentasun sektorialetara egokitzea: % 15

Atal honekin baloratu asmo da zein punturaino egokitzen den proiektua garapena eraginkorra izateko nazioarteko hainbat erakundek (NBE, Munduko Bankua, eta abar) proposatzen dituzten lankidetzako sektoreetara, eta garapenerako lankidetzako 5/2001 Foru Legeko 6. artikulua lehentasunezko zatitza jotzen dituen sektoreetara: besteak beste, edateko urrez hornitu eta saneamendua; oinarritzeko hezkuntza; osasunaren lehen mailako arreta; haur guztiak immunizatzea; haurren hilkortasun-tasa murriztea; desnutrizio larria eta moderatua ezabatzea; eta helduen analfabetismo-tasa murriztea. Halaber, komunitate txikien garapen ekonomikoa bilatzen duten garapen produktiboko proiektuak bereziki interesgarritzat hartzen dira, baita giza baliabideetan prestatzekoak direnak ere. Bereziki baloratuko dira urrez hornitzeko, oinarritzeko osasuneko eta lehen hezkuntzako proiektuak.

A.5. I. lehentasun geografikoetara egokitzea: herrialdeak: % 15

Garapen txikia duten eta azpiegiturak ez dituzten herrialdeetan gauzatu beharreko proiektuei lehentasuna ematea da helburua. Hori baloratzeko, herrialde onuradun bakoitzaren egungo giza garapenerako indizea hartuko da kontuan.

A.6. II. lehentasun geografikoetara egokitzea: zonak: % 8

Helburua da baloratzeko zein punturaino egokitzen den proiektua eremu partikularraren premietara, eremu zehatza horrek dituen ezaugarriekiko baloratzeko: landa-eremua, hiri ingurukoa, eta abar. Halaber, eremuaren ingurumenarekiko errespetua eta genero-irizpideak aplikatzea baloratuko da.

A.7. Barne-koherentzia: % 12

Proiektuaren diseinuaren alderdi teknikoak baloratu nahi dira, bereziki behar bezala egokituta daudela: arazoak, helburuak, jarduerak, baliabideak. Halaber, aurkezteko eta idazteko modua, aurrekontuaren banakapena eta proiektua ulergarria egiten duen oro baloratuko da.

A.8. Bideragarritasuna eta denbora-proiektzioa: % 14

Proiektua epe luzera bideragarria ote den baloratu asmo da, bereziki kanpo-laguntza kendu eta gero. Bideragarritasun hori ekonomia-, teknika- eta gizarte-mailan analizatuko da.

Proiektuek, aintzat hartuak izateko, gutxienez 60na puntu jaso beharko dituzte.

B) Aurreko atalaren arabera, proiektu bakoitzari puntuazio bat emanda, puntuazio altuen lortu dutenak aukeratuko dira, horien eskaerek funtsaren baliabide ekonomikoen % 140 lortu arteko kopuru nahikoa erdietsi arte, azken proiektu osoa barne.

C) Azkenik, aukeratutako proiektuen puntuazioei ondorengo zifrak gehituko zaizkie, bere kasuan, proiektuen tipologiaren arabera:

1. Edateko urez hornitu eta saneamendua.
 - Hornidura ezartzea lehen ez zegoen tokian: 5 puntu.
 - Lehendik dagoen hornidura beste eremu batera hedatzea: 5 puntu.
 - Komunak edo antzeko beste sistema batzuk eraikitzea: 2,5 puntu.
2. *Oinarrizko osasun-laguntza:*
 - Zentro berriak eraikitzea eta hornitzea: 5 puntu.
 - Lehendik dauden zentroak hobetzea eta handitzea: 2,5 puntu.
 - Osasun-sistemak ezartzeko bestelako ekintzak: 5 puntu.
 - Osasun-sistemak hobetzeko bestelako ekintzak: 2,5 puntu.
3. *Oinarrizko hezkuntza.*
 - Zentro berriak eraikitzea: 5 puntu.
 - Lehendik dauden zentroak hobetzea eta handitzea: 2 puntu.
 - Hezkuntza-programak martxan jartzea: 2 puntu.

D) Proiektuak Funtseko batzordeak baloratuko ditu, programaren arduraduna den Federazioko zerbitzu teknikoek landutako txosten teknikoetan oinarrituta. Batzorde horretako kideak NUKFko batzorde betearazleak aukeratuko ditu, batzorde betearazleko kideen artetik.

Funtseko batzordeak aukeraketa-proposamena eta proiektuak finantzatzeko proposamena eginen dio batzorde betearazleari, onar ditzan.

Oro har, Funtsak eskatzen diren kopuruen % 100 emango die aukeratutako proiektuei. Nolanahi ere, kopuruak optimizatze aldera, NUKFko batzorde betearazleak gehienez ere % 10 murriztu ahal izanen du proiektuen portzentajea interesgarria izanik ere erreserban geratu den proiekturen bat finantzatzeko, betiere neurri horrekin aurrekoen bideragarritasuna arriskuan jartzen ez bada.

7. ORDAINKETA ETA JUSTIFIKAZIOA

Diru-laguntza NUKFko batzorde betearazleak diru-laguntza hori onartu ondoren ordainduko da.

Proiektua justifikatze aldera, GKEek proiektuaren gauzatze-mailaren txosten partziala aurkeztu beharko dute, horretarako landutako ereduaren arabera, 2018ko abuztuaren 31 aurretik. Halaber, azken txosten narratiboa (deialdi honetako II. eranskineko ereduaren arabera) aurkeztuko dute, baita haien borondatez proiektua gauzatu izana bermatuko duen dokumentazio idatzia nahiz grafikoa ere.

Horiez gain, proiektua gauzatu izanaren txosten ekonomiko bat, behar bezala justifikaturik, aurkeztu beharko dute, eta horrekin batera fakturen kopia, Hala badagokio.

8. BETEBEHARRAK

Proiektu zehatz baterako diru-laguntza jasoko duten erakundeek honako hauek bete beharko dituzte nahitaez:

- a) Proiektua diru-laguntza emateko betebeharretan azaldu bezala egitea. Diru-laguntza osoa edo, hala bada, horren lehenbiziko zatia jaso eta handik hiru hilabetera hasiko da proiektua, beranduenez. Entitatea betebehar honetatik libre geldituko da baldin eta aparteko edo ezinbesteko arrazoiengatik ezinezkoa bada hastea. Arrazoi horiek justifikatu egin beharko ditu eta NUKFk onartu.
- b) Proiektua gauzatu ezin bada edo diru-laguntza ematean ezarritako baldintzak bete ezin badira, jasotako dirua itzultzea, edo dena justifikatu ezin bada, justifikatu ezina itzultzea.
- c) Aipatutako amaiera-txostena eta bitarteko txostena aurkeztea.
- d) NUKFri baimena ematea eta laguntzea proiektuaren garapenaren berri ematen, Nafarroako jendea garapenerako lankidetzaren arloan sentsibilizatze aldera.
- e) Diruz lagundutako proiektuaren publizitate eta zabalkunde lan guztietan diru-laguntzaren jatorria adieraztea. Hedatze-lana idatzia edo grafikoa baldin bada, "Nafarroako Toki Erakundeak" izeneko logotipoa erabiliko da (horren diseinua NUKFren bulegoan lor daiteke); diruz lagundutako erakundearen logotipoaren tamaina berean eta berdin ikusteko moduan agertuko da aipatu logotipoa. Halaber, berariaz jakinaraziko zaio tokian tokiko kontraparte edo bazkideari diru-laguntza horren jatorria.
- f) Diru-laguntza ematerakoan kontuan izandako inguruabar, betekizun eta baldintzetan aldaketarik izanez gero, horien berri NUKFri ematea eta horretarako baimena baimena eskatzea.

9. DATU PERTSONALAK BABESTEA.

Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Legearen 5. artikuluan ezarritakoarekin bat, aditzera ematen da, beren tratamendurako baimena eman bidenabar, Toki Funtzari laguntzak tramitatzeko ekartzen zaizkion edo etorkizunean ematen ahal zaizkion datu pertsonalak komunikazioa errazteko xedearekin tratatuak izanen direla, harremanetarako datuak Administrazio Orokorra izeneko fitxategian sarturik.

NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOAK du fitxategiaren ardura, eta fitxategian sartu, datuak zuzendu, ezabatu eta haien aurka jotzeko eskubideak bere egoitzan erabil daitezke, helbide honetan: Tuterako karrika 20, 3.a, 31003 Iruñea.